

Errebotearen xarma

Herria bereizten duen kirola da; joko garbin eraritzen dira ▶ 4-5



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-12-07 ▶ III. urtea ▶ 756. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

David Secok nagusitasun osoz irabazi du Asteasuko Ziklo-Krosa

ERAKUSTALDIA ▶ Bizkaitarrak saio bikaina eskaini zuen; Willemsens bigarren eta Geluykens hirugarren

LOKATZA ▶ Euriak eta hotzak proba gogortu egin zuten; nagusietan, 20 txirrindularik amaitu zuten ▶ 6



Lehen itzulitik hartu zuen aurrea David Seco euskaldunak, eta amaitu arte lehenengo postua mantentzea lortu zuen. I. GARCIA

ARESO-LEITZA ▶

Olazabal aresoarra finalean da

Elurbe eta Olaetxea lizartzarrek, ordea, galdu egin dute ▶ 7

MIREN ARRUE ▶
IKASLE SARITUA



N. URBIZU

«Konstantzia da ikasketa ororen oinarria»

Medikuntzako espedienterik onena izan da tolosarra ▶ 3

TOLOSA ▶

Sortzez Garbiaren Eguna, musikaz ▶ 6

TOLOSA ▶

Tolosako Paper Eskolak laster beteko ditu 40 urte

Hilaren 15ean ospatuko dute; ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte ▶ 2



Paper Eskola; datorren ostegunean beteko ditu 40 urte. I. ASENSIO

HEZKUNTZA ▶

40 urtez paperaren lanbidea zaintzen

Hilaren 15ean 40 urte beteko ditu Tolosako Paper Eskolak; ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte, bereziki Tolosaldeko biztanleei «gizartean txertatzeko eta hemen gaudela aldarrikatzeko»



Berazubi auzoan kokatzen da Paper Eskola; 40 urte beteko ditu hilaren 15ean. IÑIGO ASENSIO



Papergintzarako makina pilotoa dute eskolan. I. ASENSIO

ERREDAKZIOA

Dagoeneko 40 urte badira Tolosak bere lehen Paper Eskola sortu zuena. Ordutik hamaika ikasle igaro da bere ikasgeletatik, hamaika profesional atera da bertatik eta hamaika aldaketa ere izan da eskolako instalakuntzan zein eskaintzan. Betiere industria hau indarrean mantetzeko helburuz.

Hilaren 15ean, jai kolorez jantziko da eskola bere urteurrenaren festan. Honen harira ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte egun honetarako, 13:30etik aurrera. Bertara joaten diren guztiek instalakuntzak ikusteko aukera izango dute, eman diren aldaketak eta berrikuntzak aztertuz. Halaber, paper makina martxan jarriko

dute, tetrabrik ontzien birziklaketaren erakustaldia egingo dute, xaboiak, kremak eta esentziak sortuko dituzte ikasleek, irakasleek bai eta parte hartu nahi duten guztiek ere. Gainera, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren laguntzarekin, Paper Eskolaren gainean eginiko DVD bat zozketatuko dute. Hau guztia «etorkizunera aurrerapauso bat» emateko xedearekin burutuko dute. Guztiarentzat irekia bada ere, bereziki eskualdeko biztanleei zuzenduko diete jardunaldia, «eskola gizartean txertatzeko eta zabaltzeko, eta hemen gaudela aldarrikatzeko».

Historia handiko eskola da Tolosakoa: papergintzako teknikari berriek eskola baten beharra zuten, eta 1965an inauguratu zuten Tolosako Paper Eskola. Lehendabiziko ikasleek Papergintzako Teknikari, Industria Maisutza eta Papergintzako Ingeniari maila izan zuten. Instalazioak Europako eskolarik onenetan zeudenen antzekoak izan ziren. Tolosak Kataluniarekin eta Valentziarekin lehiatu behar izan zuen eskola non ipini. Azkenean, erabakia onuragarria izan zen herriarentzat eta ikasleentzat. Herrialde desberdinetatik etortzen ziren: Espainiako toki guztietatik; baita Hego Ameriketatik ere. Lehen belaunaldia 1967an atera zen, eta ikasleek uda enpresetan ematen zuten praktikak egiten. 1985an, 20.

Papergintza: bizirik dirauen industria

Paco Ceña Paper Eskolako zuzendariak eta Jone Irastorza ikasketa buruak industria honen egoeraren gainean jardun dute HRTZarekin. Urteurrenaren harira, jendeak «oraindik indarrean eta bizirik» dagoela jakitearen garrantzia azpimarratu dute biek ala biek. Paperaren historiaren berri emateko, «etorkizun hurbil batean» eskolan bertan museo bat zabaltzeko asmoa dute, paperaren memoria mantentzeko. «Proiektu hau aurrera eramateko instalakuntza egokiak ditugu». Egokiak dira, halaber, ikasleek lanbidea ondo ikas teko eraikuntzak duen azpiegitura. «Laborategiak, planta kimikoak, Espainiako estatuan pilotoa den papergintzarako



Paco Ceña zuzendaria eta Jone Irastorza ikasketa burua. I. ASENSIO

makina...». Proiektu desberdinak ere garatzen dituzte, hala nola Costa Rican edo Malasian; azken honetan, zehazki,

enpresa bat sortzeko. Arrazoia hauek guztiak direla eta, ISO 9001 kalitate ziurtagiria eskuratu zuten 2001. urtean. ◀

ESKAITZA

Paperaren zikloak ez ezik, kimika arloko heziketa zikloak ere eskaintzen ditu Paper Eskolak Tolosan

MUSEOA

Paperaren historiari buruzko museo bat sortu nahi dute eskolan, paperaren memoria mantentzeko

ten. Paper Eskolaren Garapenerako Elkartea sortu zuten. Eta, honenbestez, 2005era heltzen da eskola: ikerketa-proiektuak egiten ditu, papergintzako enpresari zerbizituak ematen dizkie, ingurumeneko proiektuekin parte hartzen du, eta paperaren, kimikaren eta ingurumenaren mundua ezagutu nahi duten gazteak hezitzen ditu. Donostialdeko, Goierriko, Zumarraga inguruko eta Tolosaldeko gazteek ikasten dute bertan. Askotariko zikloak eskaintzen dituzte instalakuntza

zabal hauetan: heziketa zikloak —kimikagintzako teknikaria, laborategiko teknikaria, pasta eta paper prozesuko prozesuko teknikaria, analisi eta kontrolko goi-teknikaria, ore eta papergintzako goi-teknikaria, kimikagintzako goi-teknikaria, ingurumen kimikako goi-teknikaria, argitalpen-diseinuan eta produkzioan goi-teknikaria—, ez araututako prestakuntza, jardunaldi teknikoak eta kartarako ikastaroak. Hezkuntza maila handia, beraz, paperaren industriaren mesederako.

MIREN ARRUE ▶ KUTXA-K ESPEDIENTERIK ONENARI EMANDAKO SARIAREN IRABAZLEA

«Sariarekin nire familia eta lagunak norabaitera gonbidatuko ditut»

Miren Arrue 24 urteko tolosarrak jaso du Kutxak emandako saria aurten; izan ere, Gipuzkoako Medikuntzako espedienterik onena duen ikaslea da

NEREA URBIZU

Azaroaren 22a egun berezia izan zen Miren Arruerentzat: musikariaren eguna izateaz gain, 24 urteko tolosar honek sari merezia jaso baitzuen Kutxaren eskutik. Merezitakoa, izan ere, Gipuzkoako Medikuntzako espedienterik onena izan da. Sariari, ikasle garaiari eta etorkizunari buruz mintzatu da, besteak beste, HITZAREKIN. **Zure espezialitateko espedienterik onena izateko, ibilbidea ere horrelakoa izango duzu...**

Beno, bai, beti nota onak atera izan ditut, ez dut behin ere ezer suspenditu. Laskorain ikastolan egin nuen Batxilergoa, eta ez dut inoiz arazorik izan.

Han ere saririk eskuratu al zenuen?

Bai, ohorezko matrikula lortu nuen. Nolabait ibilbideari eta egindako esfortzuari emandako sari bat da.

Borondatezkoa da espediente aurkeztea?

Ez. Zuk zure lana egiten jarraitzen duzu, eta idazkaritzatik zure espediente aurkeztuko dutela esaten dizute. Zure esku dago baiezkoa edo ezezkoa. Nik baietz erantzun nuen eta egun batean deia jaso nuen, saritua izango nintzela esanez. **Eta hori karrera guztietan egiten den zerbaite al da?**

Ikasketa guztietan gauza bera egiten dute, eta nire kasuan,



NEREA URBIZU

Medikuntzan, alegia, ni izan naiz saritua.

Jende askok jakin nahiko du zein den zure media...

(Kar, kar, kar). 9,2koa da, hori unibertsitatekoa bakarrik kontuan izanik. Batxilergoak ez du sari hau eskuratzeko balio.

Sarian eman dizuten dirua ikasketetan gastatuko al duzu?

Ez, ez nago horretara behartua, hau ez da beka bat, sari bat baizik. Are gehiago: diru horrekin, hasteko, familiakoak bazkari batera gonbidatuko ditut, eta lagunekin ere modu batera edo bestera ospatu egingo dut. Sobratzen denarekin Europako txokoren bat bisitatzera joango naiz.

Gogorra al da medikuntzako ikasketak burutzea?

Ez da gogorra, ikasi egin behar den karreretakoa da, baina ez naiz inoiz gehiegi agobiatu. Ikasketa guztietan bezala, konstantzia behar da; hori da, nire ustez, ikasketa ororen oinarria.

Orain espezialitatea aukeratzeko faltako zaizu.

Ez daukat oraindik argi. Gainera, orain MIR delakoa prestatzen ari naiz urtarilaren 21erako, eta horrekin badut nahikoa. Printzipioz, zirurgia gustatzen zait, ez plastikoa, ordea; baina gero gerokoak. Argi daukat Medikuntza oso gustuko dudala, eta beti gustatu izan zaidala. Praktiketan ere oso pozik egon nintzen, Donostiako Erresidentzian.

Zer moduz ikusten duzu lan arloa?

Konplikaturik, baina MIR delakoa behin ateraz gero, ez da hain zaila izaten. Medikuntzak, gainera, arlo asko jorratzen ditu. Ate gehiago irekitzeko ere praktikak kanpoan egitea ondo egoten da, baina ez dago, printzipioz, nire planen barne.

OHOREZKO MATRIKULA

«Ohorezko matrikula, nolabait ere, zure ikasketen ibilbideari eta egindako esfortzuari emandako saria da»

IKASKETAK

«Medikuntza bera ez zait zaila egin, gustuko dut. Hala ere, konstantzia izatea oso garrantzitsua da, oinarrizkoa ia»

LAN ARLOA

«MIR delakoa behin lortuz gero lana lortzea ez da hain zaila izaten; medikuntzak, gainera, arlo asko jorratzen ditu»

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

VILLABONA PILOTA

Errebotea, joko ikusgarria

Ez dira bere garai onenak: jokatzeko taldea osatzeko arazoak dituzte eta jende gutxi joaten da ikustera; frontoiaren berrikuntzak marka dezake bere etorkizuna

JOXEMI SAIZAR

Villabonak kirol berri bat dauka, oso leku gutxi dagoen jokatzen dena eta herria berrizten duena: errebotea. XVIII. mendean erdialdetik datortzen pilota joko hau tenisaren familiakoa izan daitekeela diote batzuek. Zumezko saskiarekin jokatzen diren joko hauetan lehena laxoa izan zen, gaur egun Euzkan aldean berreskuratzari diren pilota jokoak.



Errebote partidu bat Villabonako plazan. I. SARRA

Plazan bertan jokatzen ikusi gabe zaila da errebotea nola jokatzen den espikatzea. Plaza osoa behar da jokatzeko—90-100 metrokoa normalean. Villabonako 70 metrokoa da—. Egunaldi ateratzen behar da jokatzeko, horregatik partiduak apiriletik uztailera izaten dira. Hala ere, askotan euriagatik bertan behera utzi behar izaten dira. Miera batek bi erremuntatu zaitzen da jokalekua. Sakalariaren aldean motzagoa izaten da.

Alde batetik bost jokalaririk talde bana kokatzen da. Erdian kokatzen diren bi jokalaririk —sakalaria eta paradoreak— pilota gelditu behar dute, marraren beste aldera pasatzen utzi gabe. Horretarako garrantzia erabiltzen dute. Sakala esku egiten da botariaren bostea emanen. Beste hiru jokalaririk saskia dute, erremontean erabiltzen dena baino zehatz txikiagoa. Pilotariaren eskumuturraren jokoa eta besoaren indarrak du garrantzia. Pareatik gertu izan dauden bi jokalaririk jokatzen dute gehien, beraiek josten dituzte pilotakada gehienak. Hirugarrenak, berriz, bi hauek eta erdiko bien

arteko eremua kubritzen du. Oso pilota gutxi jokatzen du, baina erabakiorrak tontoa egiteko garrantziak.

Tenisarekin antza

Errebotean jokatzeko erabiltzen den pilota bi larrukoa da, plazan jokatzen denaz askoz gortzen delako. Zorua ez da leuna, pareta ere kaskatua dago eta alaiak handia hartzen du pilotak.

Tantoak konatzeko modua ere berezia du, tentsioa bezala, eta tontorearen arabera erdiko marra batera edo bestera mugitzen da. Bandera batzuk —gaur egun jolote batzuk erabiltzen dituzte— adierazten dute non dagoen marra, zelaia handituz edo txikituz. Espalotzatzen erabaki polemikoak izaten dituzte, eta zazpi epaile behar izaten dira, hiru sakalariaren aldean, bi zelaren erdian eta

beste bi beste aldean. Jokatzen duten bi taldeek jartzen dituzte epaileak. Guri daude, lau edo bost epaileekin ere moldatzen dira batzuetan. Tentsio handiko partidak izaten dira eta normalean ordu eta erdi edo bi ordu irauten dute. Kanpotik arrikatuz ari dira, baina barruan daude ezarritako erregulazioak. Partidaren ondoren hamaiketakoa edo bazkaria egiteko ohitura izaten da elkarteak.

«Duela hiru urte 1. mailan izan ginen, baina urtebete bakarrik iruan ginen. Gure alde onena etxeko partiduak dira, zelai motzagoa delako eta hobeto moldatzen garelako», azaldu du Hirsi Xabier Aierza Behar Zako sakalaria. Lehen maila horretan Ipar Euzkai Herriko 8 talde ari dira. Uztartze eta Donibane Lohizumene omen dira onenak. 2. mailan aritzen dira beste gutxiak. Ipar Euzkai Herriko besteak eta Gipuzkoako Zuberoa eta Villabona. Orain Oiarzunen ere hasi omen dira errebotea sustatzen, plaza berrira egin eta hogei bat haurren omen dira errebotean. «Eskuz 6 urtekin gorako 40 bat haurrek badazuak, baina errebotean inor ez. Pena

Joko garbi: antzekoa, baina desberdina

Errebotean aritzen diren pilotariak joko garbin ere aritzen dira, pilotako beste modalitate bat, desberdina, baina errebotearekin erlotzatuta. Bizen arteko berdintasunak eta desberdintasunak azaltzen saiatuko gara. Joko garbitzen kasuan, talde bakartzeko hiru jokalaririk, bi aurrelari eta atzetarria. Hiruek saskia erabiltzen dute. Normalean plaza librean jokatzen da eta pareta bakarria dute aurrean. Horregatik eguraldi ateratzen behar da. Hori dela eta, askotan bertan

behera utzi behar izaten dituzte partidak. Plazako denboraldi apiriletik uztailera izaten dira, pilotako beste modalitate bat, desberdina, baina errebotearekin erlotzatuta. Bizen arteko berdintasunak eta desberdintasunak azaltzen saiatuko gara. Joko garbitzen kasuan, talde bakartzeko hiru jokalaririk, bi aurrelari eta atzetarria. Hiruek saskia erabiltzen dute. Normalean plaza librean jokatzen da eta pareta bakarria dute aurrean. Horregatik eguraldi ateratzen behar da. Hori dela eta, askotan bertan



Joko garbin jokatzen Villabonako plazan aurten jokatzen. I. SARRA

behera utzi behar izaten dituzte partidak. Plazako denboraldi apiriletik uztailera izaten dira, pilotako beste modalitate bat, desberdina, baina errebotearekin erlotzatuta. Bizen arteko berdintasunak eta desberdintasunak azaltzen saiatuko gara. Joko garbitzen kasuan, talde bakartzeko hiru jokalaririk, bi aurrelari eta atzetarria. Hiruek saskia erabiltzen dute. Normalean plaza librean jokatzen da eta pareta bakarria dute aurrean. Horregatik eguraldi ateratzen behar da. Hori dela eta, askotan bertan

BI JOKOAK EZAUGARRIAK

ERREBOTEA Lekua. Plaza osoan jokatzen da. **Jokalariek**. Bost jokalarik: 2 gurtiarekin (sakalaria eta paradoreak) eta 3 saskiarekin. Sakala esku botarrian. **Epaileak**. 7 epaile. **Tantoa**. Tantak, tenisean bezala: 15, 30, 40 (2 egin behar dira) eta 45. **Jokoa**. 13 jokatara irizti behar da partida irabazteko.

JOKO GARBI Lekua. Plaza irekian pareta bakarrean edo ezker paretan. Negean fronto estalian jokatzen da. **Jokalariek**. 3 jokalarik saskiarekin: 2 aurrelari eta atzetarria bat. **Epaileak**. Epaile bakarra izaten da. **Tantoa**. 40 edo 45 tantotara, txapelketaren arabera. **Jokoa**. Ez dago jokorik.



Errebotean eta joko garbin erabiltzeko saskiak eta gurtia. I. SARRA

da atzetik inor ez etortzea. Erretratzea pena izaten da beti, baina atzetik gazteak badatuzela ikusiko bagenu sikiera...»

Behar Zanaren lana

Behar Zana elkarteak arduratzen da erreboteaz Villabonan bertandik. Garai hobekak ezagutu ditu pilota joko honek behar izaten duenak. Gaur egun saskiarekin jokatzen direnak, normalean familiarren eskuetan dute zaharrenek. Elkartearen bertan antolatze eta laguntzeko gero eta jende gutxiago biltzen da. Gaur egun senior mailako errebote taldea bakarrik dago osoa. Gazte taldea osatze zailtasunak dago Behar Zana 2. mailan dago orain. La azpitxapelotzak izan ziren, finalen Donibane Garaiziren kontra galduz.

parte eta bi partidu berri izaten dituzte urterto: Enrique Abrilren otoiomeneko torneoa Zubietaren aurka eta San Inazio egunean Harzarenen aurka.

Berrikuntzak frontoia

Plazan prestatzen martxoan hasten dira erreboteko jokalariek. Asteartero dute horretarako ordua hartuta aratatzeko. Baina normalean urte osoan aritzen dira entzenetan. Amasako frontoian, saskiarekin, eskuz —sakalariaren kasuan— edo batzuk Irurako trinketean xareekin, eskumuturrak egiteko epaile delako Gipuzkoako eta Euzkai Herriko txapelketetan hartzen dute



Jose Ignacio Santamaria Behar Zana elkartearen, omen du zuzituen bost jokalariren koadroarekin. I. SARRA

JOSE IGNACIO SANTAMARIA ERREBOTE JOKALARI OHIA

«Zaila da espikatzen, plazan ikusi behar da, baina oso polita da»

Erreboteko jokalarik onen izan zen Jose Inazio Santamaria bi-labonatarra. Arrilaga, Bidaurte, Euzkian eta Berstainekin batera boskote oso ona osatzen zuten. 45 urterekin edo erretratuz zenean —gaur egun 68 ditu— omenaldia egin zioten besteekin batera. Gaur egun errebotea gerturik jarraitzen du Behar Zana elkartearen.

Zein izan zen irabazi zenuen torneorik garrantzitsuenak?

Enrique Abrilren omeneko hiru palau aldir irabazi genuen. Zubietarekin pike handia izaten genuen. Batzuetan haiek irabazten zuten eta bestetan guk.

Zein zen Enrique Abril?

Errebotea asko lagundu zuen gizon donostiar bat. Nazioetako torneoa antolatzen zuten eta hil zenean bere izena jarri zioten torneorik.

Orain taldea osatzeko jende gutxi omen dago.

Gure garaian jendea sobran izaten zen, baina orain zailagoa da gaztea ez delako lotzen. Nahiago du jurgia egin.

Zuek ez al zenuen egiten, bada?

Tolosatik...»

Bai, noski, horri esker, beste...»

Partiden ondoren bazkaria izaten zen eta bueltatzeko komerak izaten ziren. Luera pixka bat egin digu errebotearen kontura.

Eta frontoia botatzen badute, zer gertatuko da errebotearekin?

Akaso hobea izango da errebotearekin, frontoia botatzea librea galdutako baita jokatzeko.

Zer du berezia kirol honek?

Zaila da espikatzen, horretarako plazan ikusi behar da, baina oso polita da. Oso desberdina da Kanpotik edo batzuk kasuak. Ezabaldia erraz sortzen da joku honetan, ez da garbi ikusten. Beti izaten da sesoa. Gure garaian plaza bete egiten zen, animazio ikaragarria izaten zen. Kanpotik etortzen zen jende asko guri ikustera. Andoaindik, Iruratik, Tolosatik...»

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

Gipuzkoan

50.000

etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guzietan prezio beragatik

ASTEASU ▶ VII. NAZIOARTEKO ZIKLO-KROSA

Secoren erakustaldia

Bizkaitarrak hasieratik hartu zuen abantaila; eguraldiak proba gogortu zuen



Lokatari aurre egin behar izan zioten txirrindulariek proba guztian zehar. I. GARCIA



Willemsens, Seco eta Gelyukens, podioan. I. GARCIA



Seco, proba amaitu berritan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Nagusitasun osoz gailendu zen David Seco bizkaitarra, atzo, Asteasuko VII. Nazioarteko Ziklo-Kros proban. Hasieratik hartu zuen aurrea, indartsu. David Willemsens saiatu zen gertutik jarraitzen lehenengo itzulietan, baina azkenean amore eman behar izan zuen eta abantaila handiarekin gailendu zen Seco. Podioko hirugarren lekua Kenny Gelyukentzat izan zen. Euskadunak txukun aritu ziren, eta Gorka Izagirre (6), Unai Yus (7) eta Zuhaitz Ayuso (9) lehenengo hamarretan sartu ziren.

Secorekin batera eguraldia eta bere eragina izan ziren protagonista. Euriak lokaztu egin zituen zirkuituaren zelaigunetak, eta txirrindulariek proba amaieran talde bereko mailota zeramatela zirudien. Hotzak ere gogortu zuen proba. Ikuslegoak, baina, ez zuen huts egin eta txirrindulari guztiei ondo merezitako animoak eman zizkieten.

SAILKAPENAK ▶

ELITE-23 URTE AZPIKOAK

1. David Seco (Cespa-Spiuk)
2. David Willemsens (Sint-Lenaarts)
3. Kenny Gelyukens (Scott USA)
4. Arne Daelmans (Chocolat Jac)
5. David Meys (Profel C.T.)

1. Nekane Lasa (Debarrena)
2. Naia Alzola (Debarrena)
3. Lide Larrañaga (Debarrena)

JUNIOR

1. M. M. Huenders (Herbeeretako Sel.)
2. Ion Izagirre (Caja Rural)
3. Eder Barrenetxea (Opel Ibaigane)

KADETEAK

1. Igor Merino (Fonara)
2. Iker Arranz (Sutegi-Petronor)
3. Daniel Ruiz (Germikesa)

1. Ana Usabiaga (Urrats)
2. Amaya Martioda (Sabeco)

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Ehiza garaian erabat murgildurik gaude eta eskualdean makina bat izango dira eskopeta hartu eta postuen atzean uso bandoen zain jardungo direnak. Ehizaren aldekoa ala kontrakoa zara? Zergatik?

TOLOSA ▶

Santa Maria kaperaren kontzertuak gaur eta bihar

Udal Txistulari Bandak ere bihar kontzertu berezia eskainiko du

ERREDAKZIOA

Ama Birjina Sortzez Garbiaren inguruan Tolosako Santa Maria kaperak kontzertuak eskainiko ditu, Ander Letamendiaren zuzendaritzapean. Gaur bertan, 19:00etako meza bukatu eta gero, Kaperak —koroa eta orkestra—, aspaldiko ohitura jarraituz abestuko du Felipe Gorritiren *Salvea*.

Bihar, Ama Birjinaren Sortzez Garbiaren eguna, goizeko hamaiketako mezan Kaperak ondorengoak abestuko ditu: Eduardo Mokoroaren *In Honorem S. Joannis Baptistae* meza, lau ahots nahasiatara, herriko koroa, organoa eta orkestrarekin; Ignacio Mokoroaren *Tu es sacerdos* eta Felipe Gorritiren *Magnificat* ere interpretatuko dute koroak, organoak eta orkestrak.

Tolosako Santa Maria kaperatik nabarmendu nahi dute Tolosako Udal Musika Ikastetxeko tripleek abestuko dutela beraiekin batera, aspaldiko ohitura jarraituz. Urte batzuetan ohitura hori utzita egon da.

Txistulari banda

Bihar ere Tolosako Txistulari Bandak kontzertu berezia eskainiko du. Meza nagusiaren ondoren izango da, udaletxeko arkupean. Bandako kideez gain, laguntzaile gisa Xabier Zelaia eta Joakin San Sebastian ariko dira, biak ere trompeta joz. Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean egingo dute kontzertua. J.I. Ansorena (*Agur Jauna*-ren moldaketa), Pablo Sorozabal, Jose Olaizola, M. Gonzalez Bastida, Leandro Zabala, Aita Hilario Olazaran eta Jose Arrazola konpositoreen obrak joko dituzte.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Deitu 677 31 74 01 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAN

salgai

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako:

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak



hitza

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2005eko azaroaren 2an egindako bilkuran, II.1 "Laskorain Goikoa" eremuko Birpartelazio Proiektuaren likidazioari hasierako onspena eman zion.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, hamabost lanegun (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontaktzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, Hirigintza Gestioiko 129, Eta 107, artikuluek, eta Eusko Legebiltzarren Hirigintza Tresnen eta Hirigintza Gestioaren tramitazioari buruzko ekainaren 30eko 17/94 Legearen 9.ak xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Diario Vascon, eta Hitzan argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean kokatzen Hirigintza Bulegoan egongo da, apuramenduko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu. Tolosan, 2005eko azaroaren 28an.

ALKATEA

ARESO-LIZARTZA ▶ PILOTA

Mikel Olazabal aresoarra finalean da, Beotibarren irabazita

Elurbe eta Olaetxea lizartzarrek ezin izan zuten irabazi atzo; hirurek lan fina egin zuten finalerdietako partidetan

NEREA URBIZU

Tolosako Beotibar pilotalekua: 11:30ak erlojuan, leporaino beteta, eta ikuslegoa pilotari gazteak ikusteko irrikaz. Hori zen ikusi zitekeen giroa bertan. Larrañaga-Otxotorena Elurbe-Etxeberriaren kontra izan zen lehenengo norgehiagoka promesatan. Partida gogorra izan zen, estua eta borrokatua. Oso parekatuta ibili ziren bikoteak, zein baino zein dotoreago jokatuz. Elurbe aurrelari lizartzarrak oso fin aritu zen, min asko eginez, bai aurrean, bai atzean ere, nahiz eta azkenean partida 19 tantorekin bukatu. Ordu eta 33 minutuz aritu ziren lehian. Bikote galtzailea, Elurbe-Etxeberria, nagusi izan zen lehenengo zatian; izan ere, 9-5 eta 14-10 izan ziren aurretik. 19ra berdindu eta gero, ordea, azkenean ezin izan zuten garaipena lortu. Hala ere, haien joko ederra agerian utzi zuten.

Bigarren partidari Olazabal-Jauregi eta Olaetxea-Apraiza aritu ziren, senior mailan. Finalaurre honetan ez zen joko politik ikusi, akats asko eta tanto panggalak izan ziren gehienbat. Partidaren hasierarengatik ez zuten ematen galtzaileek 17 tanto lortuko zituztenik, baina horrela bukatu zuten norgehiagoka. Hasieran 10 tanto-



Elurbe lizartzarrak pilotari emateko zain; atzean, Otxotorena. N. URBIZU



Jauregi, Olazabal, Apraiza eta Olaetxea, epailea erdian dutela. N. URBIZU

en aldea atera zuten Olazabal aresoarrak eta Jauregik. 16-2 ere egon ziren; ondoren, Lizartzako Olaetxearen bolada on

bat aprobetxatuz, 17 tantoak lortu arte. Bi aurrelariak fin aritu ziren. Olazabal, beraz, DV txapelketako finalean da.

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

Herriko egutegiak erosteko aukera

Lehenengo urtean bezala, aurtenean ere Amezketa Gazte Taldeak herriko egutegiak atera ditu. Aurten, ordea, herriko paisaiez osatutako sei argazkirekin apaintzeaz gain, tamaina handikoak dira, DIN A2koak, alegia. Herriko taberna eta dendetan daude eskuragarri, 4 euroren truke. Ateratzen duten dirua beren gastuetarako izango da.



TOLOSA ▶

1.000 eurotik gora malariari aurre egiteko

Carlos Peña igerilariak, Hirukide ikastetxearen laguntzarekin, ekintza solidarioa egin zuen larunbatean Usabalen, malariari aurre hartzeko. 150 lagun inguru aritu ziren igerian Peñarekin, haurrak batez ere, eta 1.000 eurotik gora jaso dituzte antolatzaileek; 250 moskitera erosi ahal izango dituzte. Peñak eta Hirukide herriarren laguntza eskertu nahi dute.

ELDUAIN ▶

Ana Belen Egues presoaren urtebetetzerako

Ana Belen Egues Elduaingo preso politikoak urteak bete-ko ditu laster, hilaren 11n, hain zuzen ere. Hura zorian-tzeko herrian bertan argazki bat ateratzekotan dira. Hala, bai herritarrei bai nahi duen orori zabaldu nahi diote gonbita. Igandean aterako dute argazkia; joan nahi duenak arratsaldeko hiruk eta erdian herriko plazara ager-tu behar du.

ANOETA ▶ DANTZA-SOKA

Datorren Kaldererotan ere, dantza-soka

Aurtenean ere dantza-soka egin nahi dute Anoetan, Kalderero Egu-near. Aspaldi egiten zen dantza-soka berreskuratzeko lan handia egin zuten iaz, eta, izandako arrakasta ikusita, Anoetarrok Auzolanean plataformako Kultura taldeak errepikatu egingo du ekintza. Aurten, gainera, Gazte Asanbladarekin harremanetan jarrita. Otsailaren 18an egingo dute aurtenean eguneko lehenengo ekintza baserri-baserri dantza traktoreetan ibiltzea izango da. Eguerdian plazan dantza egingo dute, gero bazkaria Kuku elkar-tean, eta ondoren beste talde batek berriro dantza egingo du. Parte hartu nahi duenak Itzuli tabernan dagoeneko dagoen zerrandan eman beharko du izena, eta hilaren 14a izango da azken eguna horretarako. 14an, hain zuzen ere, izango da lehen entse-gua, 19:30ean, Edurkan.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Aduna. 608 m²-ko pabilioa alokairuan, garabi-zubiarekin, bulegoak jarrita. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Albiztur. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Hiru solairu, bakoitza 200 m²-koa. 35.000 m²-ko lur-saila. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzea. Informazio pertsonala. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Asteasu. 2 solairuko pabilioa salgai edo alokeran, 1050 m², eta 250 m²-

ko solairuartea, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Beasain. 45 m² erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 100 m²-ko etxebizitza, berritua, trasteleku handiarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Irura. 2 logelako etxebizitza, eraiki berria, garajea aukeran.
Legorreta. 3 hektareako lursaila, sarbide onarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Eraikuntza berriko 14.000

m² pabilio salgai, 920 m²-ko azken moduluak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Segura. Eraikitzen ari diren erantsitako 14 balet, 297.500 eurotik hasita. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa. Kanpoaldea, igogailuarekin eta trastelekuarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza, berritua. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Apataerrek, duplex berritua, garajearekin eta lur-sailarekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean

azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m² erabilgarriak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelako aukera. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m²-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alliri kalean, 105 m²-ko etxebizitza. Garajea eta lorategia. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alokera etxebizitzak ere baditugu, zonalde eta azalera ezberdinetakoak. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abenduaren 7a, asteazkena ▶ III. urtea

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Orendain. *Inaxitoren ametsak* bertso-antzerkia. Bihar, 17:00etan, udaletxean. Segidan, Gabonetako kantu entsegua egingo dute, afari-merienda batekin amaitzeko.

DEIALDIAK

Alegia. Zahagiardoa eta zerbeza feria, Gaztebearen 18. urteurreneko egitarauari hasiera emateko.

Tolosa. Harizpe jubilatutako elkarteak Gabonetako Loteria eta saskietarako zenbakiak salgai jarri ditu bazkideentzat astelehena, asteazken eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

Villabona. Oinkari dantzari taldearen 30. urtemugan, taldean aritutako guztien bazkaria izango da hilaren 18an Sarasola sagardotegian. Ondoren, erromeria. Izen-ematea, 660 13 93 80an edo Ikastolako ganbaran astearte eta ostegun arratsaldeetan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Alegia. Agnes Vardaren *Los espigadores y la espigadora* dokumentala. 21:00etan, Gaztebearen. 18. urteurrenaren barruan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Francois Dupeyronen *El pabellon de los oficiales* filma. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Morant, M. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia, Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, iritzirik, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztesareak prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Zentroaren eskutik.

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bideak garbitu ondoren bazkarian elkartu ziren Amezketan. N. URBIZU



Eskualde mailako manifestazioa egin zuten ikasleek Tolosan. HITZA

«Abenduaren 6a, lan eguna»

TOLOSALDEA ▶ «Inposatutako jai egun arrotzari erantzuteko», lan eguna deitu zuten atzo Amezketan, eta Tolosan Herri Eskola eta manifestazioa egin zuten



25 bat lagun elkartu zen Laskorainen antolatutako Herri Eskolan; «balantze ona» egin dute. HITZA

ERREDAKZIOA


A benduaren 6a, Espainia-ko Konstituzioaren Eguna, euskaldunoi jai egun arrotza inposatu zaigulako», klasera zein lanera joateko deia egin zuten atzoko Tolosaldean. Besteak beste, Amezketan eta Tolosan antolatu zituzten ekintzak.

Amezketan Arretxetik San Martinera doan GR 20-aren bidea eta Lizeatik Urzabalerakoa garbitzeko hitzordua zuten eguna goizean goiz. Eguraldi txarragatik, nahi baino azkarrago egin behar izan zuten lana, baina bete zuten agindutakoa. Babarrun jatean elkartu ziren guztiak ondoren, eta kafea hartzeko garaian Euskal Curriculumaren inguruko solasaldia entzun eta hausnarketa egiteko parada hartu zuten.

Tolosan ere egin zuten Euskal Curriculumaren aldeko tailerra, 10:00etan. Ordu horretan ekin zitoten, Laskorainen, Herri Eskolan, Ikasle Abertzaleek deituta. 25 lagunetik gora elkartu ziren bertan hainbat gai jorrazteko asmoz. 11:30ean, Bilgune Feministako ordezkariak azken hiru belaunaldiaren historiaren errepaso egin zuten. Eta, 13:00ak inguruan, azkenik, eskualde mailako manifestazioa egin zuten Tolosan, Triangulotik abiatuta.

Bestalde, Tolosaldeko Bai Euskal Herriari (BEH) ekimena (normaltasunez lan egiteko) eta Durangon atzo («jaiegun arrotzari erantzuteko eta naziotasuna aldarrikatzeko») egingako manifestaziora joateko deialdia egin zuten.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Mikel Iturrioz Irigoien
 (Tolosa). Gaur 6 urte.
 Zorionak familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!